

## PIARRESH'EN IZIALDURA

Herri ttipietan ere, hirietan bezala, badire yende gaishtarrot eta trufatzaileak. Irri egiteko, debruzko yakintzak asmatzen dituzte zonbaitek.

Behin, bospasei adishkidek egin zuten afari on bat. Untsa yan-edan ondoan, eta gauza guzietarik mintzatuik, erori ziren sorgin, debru eta lamina solasian.

Trufatzen ziren gaizo zozo horietarik, itsuki sinesten dutenetarik atso beltzat, yats batian zaldizko, shimindegiari beiti sukaldetan sarzen direla.

Irri karkailetan zauden denak holako astokerietaz.

Adishkideetarik bat, Piarresh, gizon izikorra zen, bainan aulkeria hori ez agerrarazteko, berak ere irri egiten zuen, barnian erabe izanikan ere.

Piarresh bizi zen herritik urrunshko, mendian, bazterretche pollit batian.

Maaitik shutitu eta erran zien, adishkideeri: "Uzten zituztet, emaztiak ez nezan berantets, Egizie lo, eta bihar artio". Gauza bera, Piarresh, iardesten dute.

Etzakien gaizoak ze debrukeria zuten asmatua lagunek beraz trufatzeko. ¿Nola sinets afaria shede hortan egina zutela?

Abiatzen da Piarresh mendiari goiti bide zearkatu eta sasitsu batian. Gaua illunenetarik zen. Hiru urrats aitzinago etzen bihirik ageri.

Burua apaldia ostatuko solasak gogoan, bazohan doi bat beldurtia, noiz eta bat-atian, brist!, iragaiten zaio zerbait zangoen ondotik. Illun beltz artan ezin ikusiz shakurño izitu bat zela, bihotzak punpa bat egiten dako.

Hándik arashago, bidearen bihurtune itsusienean entzuten du garasi samin bat.

Gelditzen da Piarresh landatua, ikaratua.

Beste bi urratsen ondotik berriz aditzen du oyu izigarri bat, denbizihoa baiño ozenagoa.

...Eta aritz ondo lodi baten sahetsetik agertzen zaio egundaiño ikus ditekenez gauzarik ikaragarriena!...

Gizon edo debru alimale luze bat, burutik zangoetaraino mihise shuri batekin yauntzia, begitartea kukutua, argi bat eskuan...

Eta hobitik edo infernutik ateratu botz itsusi batekin erraiten dako Piarreshi.

“Arima erratua nuk, debru gorriak igortzen nik hiri yakinarazteko ifernuko suian kishkalduko izala hogoi egunen buruan betiereko oiñazetasun ez balinbaduk berehala itzultzen yabeari ebatsi ien zikiro ura Dominisheneko artaldetik”.

Eta Piarreshék, lurrari itzatua, ezin igituz, bihotza panpa zalapartan, yardesten du botz mehe batekin. “Baa eginen dut zuk erraiten daazuna”.

Bainan orduan arima erratua, yauzi batez, mihisia zaflaka, be-soak zabaldurik, atzaparrak idekiak, Piarresh'en lepoari lotzeko eta itotzekotan zohalarik, hau, (indarrak ez dakigu nola herrituak), itzultzen da eta patarrari behera urtshintcharen zalutasunian artzen du herriko bidia hats gaitzian, hasperen aundian.

Tupustan eta lehertua sartzan da ostatuan, eta erraiten dako etche-koandieriari. “Trenpe chartia niz, eta nai nuke hemen iragan gaua”.

—¿Bainan zer duzu, ze gertatu zauzu Piarresh: nai duzia artu tea edo tisana bero bat? —Ez, ezdut deuseren beharrik.

Eta emaztekiak ereman zuen ganbera baterat. Piarresh oean edatu zen zabal-zabala, bihotza oraino yauzika.

Haren adishkideak kututuak zauden beste ganbera batian, denak entzunik, irriz leher egiteko pundian bezala.

Bulta baten ondotik etchia ishiltasunian zelarik, ateratzen dira andik, eta zango puntetan yuaiten Piarreshen ateko giltza shilotik soiterat. *Arima erratia* ere eiekin zen...

Piarresh entzuten du herriz oishtian aditu garrasaia. Gaizoari orduan argitzen zaio adimendua, eta dena ulertzen! Erra gorrian oyu egiten du: Urdeak, urde tresna tzarrak!!

Bainan etzen ohetik igitu. Pausu luze baten beharrean zen.

*Enrike ZUBIRI.*

Gaishtarrot = malicioso.  
Trufatu = burlatu.  
Yakintzak = mofas.  
Untsa = ongi.  
Yats = eskoba; isats.  
Izikorra = beldurtia.  
Aulqueria = milizkeria.  
Erabe = bildur.  
Berantets = berandutu.  
Iardesten = erantzuten.  
Shede = asmo.  
Solasak = izketak.  
Skakurño = chakurttó.  
Izitu = izutu.  
Araskago = aruntzago.

Mihise = maindire.  
Ozenago = más sonoro.  
Erratua = aparecido.  
Igituz = mugituz.  
Patarra = malda; aldapa.  
Hats gaitzean = laster aundian.  
Tupustan = atropelladamente.  
Trempe chartua = ez ongi.  
Yauzika = saltoka.  
Kukutu = esconder.  
Pundian = pontuan.  
Soiterat = behatzera, ikustera.  
Pausu = deskantsu.  
Izaldura = susto.